



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2010EKO
ABENDUAREN 17AN EGINIKO OHIKO BILKURARI
DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2010eko abenduaren 17ko eguerdiko 12:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
(Guztiak Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldekoak).
- Maite PEÑA LOPEZ (EAJ PNV)

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Joxe Mari BURGOS VIÑARAS jaunak(Alkarbide).

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

1. Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 3an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Behin behineko Idazkari Nagusiak Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 3an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurritakoan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKIDU

- Onartzea Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko abenduaren 3an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE
GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 17 DE
DICIEMBRE DE 2010**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 12:30 horas del día 17 de diciembre de 2010, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde D. Juan Carlos MERINO GONZALEZ (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- (Todos del grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).
- Maite PEÑA LOPEZ (EAJ/PNV)

No asiste, excusando su asistencia, Joxe Maria BURGOS VIÑARÁS (Alkarbide).

Asiste y da fe del acto el Secretario General D. Francisco Javier LESCA EZPELETA.

1. Lectura y aprobación, en su caso, del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 3 de diciembre de 2010.

Leída por el Secretario General el Acta correspondiente a las Sesión Ordinaria de Junta de Gobierno local de fecha 3 de diciembre, de 2010.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

ACUERDA

- Aprobar el Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de Junta de Gobierno Local de fecha 3 de diciembre, de 2010.



2. Onartzea Berdintasunerako teknikari lanpostua denboraldi batez betetzeko deialdia arautuko duten oinarrien aurka tarteraturiko birjarpen-errekurtsoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko urriaren 15ean eginiko bilkuran, erabaki zuen deialdia egitea eta oinarriak onartzea Berdintasunerako teknikari lanpostua denboraldi batez betetzeko.

Oinarri horien aurka, 2010eko azaroaren 10ean, Donostiako postan Berdintasunerako teknikari Belen Martinez Menendez andreak birjarpen-errekurtsoa jarri zuen, Udal honetako sarrera-erregistroan urte eta hil bereko 11n, 13825 zk.rekin, sarrera emana.

Errekurtsoan zera argudiatzen du: bere iritziz, Lehiaketa-fasean Berdintasun Kontseiluetan parte hartzeagatik emaniko puntuak urratzen du Berdintasun-printzipioa, hain zuzen kargu horiek erakunde, elkarte edo organismoetako politikariek edo ordezkariak bete ditzaketelako, hau da, inolako arrazoi objektiborik gabe izendatutakoak.

Errekurtso hori Errenteriako Udaleko Berdintasunerako Kontseilura —merezimendu hori proposatu zuen organoa zelako— bidali ondoren, honek errekurtsoa onartzea proposatu du, eta ondorioz, erabaki du kentzea merezimendu hori eta puntu hori gehitzea, bitik hirura pasatuz, berdintasunaren inguruan eginiko azterlan, artikulua eta argitalpen atalari.

Akordio hori hartzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, hain zuzen deialdiko oinarriak onartu zituen organoa delako.

2. Estimación del recurso de reposición interpuesto contra las bases que han de regir la convocatoria para la provisión temporal del puesto de técnico/a de igualdad.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 15 de octubre de 2010 acordó realizar una convocatoria pública para la provisión temporal del puesto de técnico de igualdad, así como aprobar las bases que han de regir la misma.

Contra las citadas bases fue interpuesto un recurso de reposición con fecha 10 de noviembre de 2010 en la oficina de correos de Donostia, registro de entrada en este Ayuntamiento nº 13825 de fecha 11 del mismo mes y año, por D^a Belén Martínez Menéndez, técnica de igualdad.

La razón de su recurso se argumenta en que entiende que dentro de la fase de Concurso, el punto otorgado por participación en los Consejos de Igualdad como presidente o vocal, vulnera el principio de igualdad, ya que estos cargos sólo pueden ser desempeñados por personas políticas o representativas de instituciones, asociaciones u organismos, es decir, designadas sin ninguna razón objetiva.

Trasladado el citado recurso al Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Errenteria, por ser el órgano que propuso la inclusión del mérito recurrido, éste ha mostrado su postura favorable a estimar el recurso y propone, en consecuencia, eliminar el mérito impugnado e incrementar ese punto al mérito referente a los estudios, artículos y publicaciones en materia de igualdad, pasando de dos a tres puntos.

Considerando que la adopción de este acuerdo es competencia de la Junta de Gobierno, por ser el órgano que ha aprobado las bases de la



convocatoria.

Langileria Batzordearen jarrera aldatetaren aldekoa da.

El comité de personal ha mostrado su postura favorable con esta modificación.

Giza Baliabide Saileko ordezkariaren proposamena ikusitakoan.

A propuesta del Delegado de Recursos Humanos.

Ohiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

ERABAKIDU

ACUERDA

1. Onartzea Belen Martinez Menendez andreak 2010eko azaroaren 10ean tarteraturiko birjarpen-errekurtsoa, eta ondorioz, aldatzea 2010eko urriaren 15ean Tokiko Gobernu Batzarrak onarturiko oinarriak ondorengo eran:

1.- Estimar el recurso de reposición interpuesto con fecha 10 de noviembre de 2010 por Dña. Bélen Martinez Menéndez y, en consecuencia, modificar las bases aprobadas por la Junta de Gobierno de fecha 15 de octubre de 2010 en los siguientes términos:

- Honako merezimendua kentzea: *"Berdintasunerako kontseiluetan presidente edo bokal modura parte-hartu izana: gehienez ere puntu 1"*.

- Eliminar el siguiente mérito: *"Participación en los Consejos de Igualdad como presidente o vocal, hasta un máximo de 1 punto."*

- Honako merezimendua aldatzea, bitik hiru puntura pasatuz: *"Berdintasunaren arloko azterlanak, artikuluak, argitalpenak...egin izana: gehienez ere 3 puntu."*

- Modificar el siguiente mérito, pasando de dos a tres puntos: *"Estudios, artículos, publicaciones... en materia de igualdad, hasta un máximo de 3 puntos."*

2. Iragarkiak argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko iragarki-oholean eta Udaleko web orrian.

2.- Comunicar este acuerdo a la persona recurrente y publicar los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal.

Jarraian, Gai Zerrendatik kanpo, eta aho batez presazkoa aitortu ostean, ondoko gaia aztertu dute:

Seguidamente fuera del Orden del Día y previa declaración de urgencia por unanimidad, se trata el siguiente asunto:

.- "CD DE BEISBOL Y SOFBOL RENTOKS DE ERRETERIA" elkarten udal erregistroan inskribatzea

.- Inscripcion en el registro municipal de asociaciones del Club "CD DE BEISBOL Y SOFBOL RENTOKS DE ERRETERIA"

Aurrerakinak

Antecedentes



Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkarten udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribaturik egoteko honako baldintzak bete behar dira:

1.- Errenterian lankidetzeta-lanak egitea.

2.- Eusko Jauriaritzan Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkarten Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea, edo bere kasuan, Eusko Jauriaritzako Kirol Entitateen Erregistroan egotea.

3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

CD DE BEISBOL Y SOFBOL RENTOKS DE ERRETERIA klubak, 2010eko azaroaren 15ean aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Aurreko guztia kontuan hartuta, baldintzak betetzen direla ikusirik,

Errenteriako Udalaren Kirol Patronatuaren Zuzendaritza Batzordearen proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKIDU

Inskribatzea "CD DE BEISBOL Y SOFBOL RENTOKS DE ERRETERIA" kluba dirua irabaztea xede ez duten Udalaren intereseko Elkarten Udalerregistroan.

En fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el reglamento regulador del registro municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria.

2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco, o, en su caso, en el registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.

3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha **15 de noviembre de 2010**, el **CD DE BEISBOL Y SOFBOL RENTOKS DE ERRETERIA** solicita ser inscrito en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto y considerando que cumple los requisitos,

A propuesta de La Junta Rectora del Patronato Municipal de Deportes de Errenteria.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad,

ACUERDA

La inscripción del club "CD DE BEISBOL Y SOFBOL RENTOKS DE ERRETERIA" en el Registro Municipal de Asociaciones de interés municipal sin ánimo de lucro.



Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 12:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 12:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente Acta en los folios números _____ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.